

Udaleko Hezkuntza Sailetik eta Donostiak Hiri hezitzaile gisa duen konpromisotik, hainbat hezkuntza programa bultzatu dira aurten, azaroaren 29an prentsara aurkeztu direnak. Honako hauek dira:



- **Eskola Kontzertuak – Conciertos Escolares:** Euskadiko Orkestrak, Donostiako Udalarekin lankidetzan, Musika Gela zikloaren barruan, eskola-kontzertuak antolatzen ditu haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat, musika herritarrei eta bereziki gazteei hurbiltzeko helburuarekin. Hiru ekoizpen propio aurkezten dira: Misterioa, Ilargiari kantari eta Logelan logale. Aurten, berrikuntza gisa, ikasleek abesbatzekin eta orkestraren laguntzarekin abestuko dute. Aurreikuspenen arabera, 8.000 ikasle inguru joango dira Kontzertuetara, Gipuzkoa osoko 44 udalerritako 100 ikastetxetatik gorako ikasleak.

- **Deseraikiz:** Deconstruyendo : sexu-aniztasuna eta desberdintasunak ikuspegi positibotik lantzeko helburua duen proiektua da. Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin. Lantzen ari da.

- **Deskonektatuak** – *Desconectados*: gazteen teknologiarekiko mendekotasuna lantzeko saioak, mikroantzerkia eta tailer parte-hartzaileen bitartez. 12-13 urte bitarteko ikasleentzako proiektua da, bi aktorek dinamizatua. Guztira 30 saio egin dira 9 ikastetxetako Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleen geletan.

- **Sexuen Heziketa Integrala** - Educación Sexual Integral : 11 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako programa da, sexualitatearen kontzeptua zabaltzeko eta sexualitatea modu integraltzat garatzeko helburua duena. Saioak 5 ikastetxetako 11 gelatan egin dira, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin.

- **Maitasun erromantikotik harreman parekideetara** - *Del amor romántico a las relaciones paritarias*: Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat harreman afektiboei buruzko saio teoriko-praktikoak egiten dira eta hauek dira landutako gai nagusiak: afektuak eta emozioak; erotika eta desioa;

generoaren eraikuntza; gorputz-aniztasuna; sexu-praktikak; tratu ona eta botere-harremanak.
Saioak bi ikastetxetan egin dira

- **Mundu pitzatu batean ibiltzea** - *En busca de un mundo agrietado*: haurren eta nerabeen mundu-ikuspegia ezagutzeko eta haien ikuspuntuen, ideien, sentsazioen eta proposamenen garrantzia helarazteko saioak dira, 7 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 14 geletan egin direnak. Tratu ona, berdintasuna eta parte-hartzea sustatu nahi dira, metodologia aktiboetan oinarritutako dinamiken bidez.

- **Gazteak etorkizunerako trebatzen** - *Formando a los jóvenes para el futuro*: Gazteen formazioa eta prestakuntza oinarri, etorkizunerako erronkei nola aurrea hartu landu nahi da. Lau dira gai nagusiak: autoezagutza, adimen emozionala, etorkizunari begirako erabakiak eta ahalmen transbertsalak bizitzarako tresna gisa. 4. DBH eta 1. Batxilergoko 4 gelatan garatzen ari da proiektua.

- **Gida didaktikoa Mapandreak:** Donostiako ikastetxeentzako erabilgarria den gida digitala da, Hezkuntza komunitateko kideek ikasleekin batera lantzeko jarduera desberdinak proposatzen dituen, “Mapandreak. Plazaratu, maparatu” mapa ilustratua oinarri hartuta. Proiektua hiriko kale-izendegian oraindik ere gutxiengoa diren emakumeak ikustarazteko sortu da eta mapa ilustratu honek espazio publikoko kale, plaza, eskultura eta bestelakoak jasotzen ditu ordezkagarritasun eta berdintasunaren lanean jarraitzearen beharra gogoraraziz.



La Ciudad Educadora como laboratorio de aprendizajes, ciudadanía y transformación social

